

Informazio
soziodemografikoaren
Bisorea

**AURKEZTEKO
EKITALDIA**

**ACTO DE
PRESENTACIÓN**
del Visor de
información
sociodemográfica

■ 2026/09/17 ■ 17/09/2026

■ NAGUSI INTELLIGENCE CENTER (NIC)



Informazio soziodemografikoaren bisorea aurkezteko ekitaldia egingo da irailaren 17an. Bisore hori Bizkaiko Bizitza Luzearen eta Zaintzaren Behatokiak bultzatutako tresna da, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimena da, Gizarte Ekintza Sailaren Bizitza Luzearen eta Erronka Demografikoaren Zuzendaritza Nagusiari atxikia.

Bisorea Behatokiaren adierazleen aginte-koadroaren adierazpen publikoa da: demografia-eta gizarte-arloko funtsezko adierazleak bildu, sistematizatu eta aldian-aldian eguneratzen dituen sistema, **Bizkaiko 50 urte eta gehiagoko pertsonen egoeraren erradiografia** eskaintzeko aukera ematen duena.

Helburua da herritarren premien bilakaerari jarraitzea, joerak identifikatzea eta lurraldeko bizitza-luzerarekin, bizi-baldintzekin eta zaintzekin lotutako politika publikoen diseinua, plangintza eta ebaluazioa babestea.

Bisorea **bi iturri motaz** elikatzen da. Alde batetik, Behatokiak berak Bizkaiko 50 urte eta gehiagoko biztanleen gizarte-premiei buruz egindako oinarritzko **azterketa soziologikoa**. Bestetik, arlo soziodemografikoa, lanekoa, diru-sarrerena, kontsumoarena, gaitasun digitalena eta osasunarena —Eustatetik eta Eusko Jaurlaritzatik datozenak— eta Bizkaiko Foru Aldundiaren mendetasuna aitortua duten pertsonen erregistroa barne hartzen dituzten **bigarren mailako estatistika-eragiketen** multzo zabala.

Jardunaldian, bisore horren **testuingurua** eta **jatorria** aurkeztuko dira, **haren dimentsioetan** eta **funtzionaltasunetan** barrena nabigatuko da, eta, azkenik, **etengabe eguneratuta** nola mantenduko den azalduko da.


El próximo 17 de septiembre tendrá lugar el acto de presentación del **Visor de información sociodemográfica**, una herramienta impulsada por el Observatorio de Longevidad y Cuidados de Bizkaia, iniciativa de la Diputación Foral de Bizkaia adscrita a la Dirección General de Longevidad y Reto Demográfico del Departamento de Acción Social.

El Visor es la expresión pública del cuadro de mando de indicadores del Observatorio: un sistema que recopila, sistematiza y actualiza de forma periódica indicadores clave de carácter demográfico y social, y que permite ofrecer una **radiografía de la situación de las personas de 50 y más años de Bizkaia**.

Su **finalidad** es seguir la evolución de las **necesidades de la población, identificar tendencias y apoyar el diseño, la planificación y la evaluación de las políticas públicas vinculadas a la longevidad**, las condiciones de vida y los cuidados en el territorio.

El visor se nutre de **dos tipos de fuentes**. Por un lado, del **estudio sociológico** de base del propio Observatorio sobre las necesidades sociales de la población de 50 y más años de Bizkaia. Por otro, de un conjunto amplio de **operaciones estadísticas secundarias** que cubren los ámbitos sociodemográfico, laboral, de ingresos, consumo, competencias digitales y salud —procedentes de Eustat y del Gobierno Vasco—, así como del registro de personas con reconocimiento de dependencia de la Diputación Foral de Bizkaia.


Durante la jornada se presentará el **contexto** y el **origen** del que nace este visor, **se navegará por sus dimensiones y funcionalidades** y, por último, se explicará cómo **se mantendrá actualizado de forma permanente**.



PROGRAMA

- 10:30 **Irekiera instituzionala /**
Apertura institucional
- 10:40 **Informazio**
soziodemografikoaren
bisorearen aurkezpena /
Presentación del
Visor de información
sociodemográfica
- 11:40 **Galderen txanda /**
Turno de preguntas
- 12:00 **Agurra eta itxiera /**
Despedida y cierre

KOKAPENA LOCALIZACIÓN



**Nagusi Intelligence
Center (NIC)**
Aita Gotzon Kalea 37
4. solairua/Planta 4ª
48610 Urduliz

